

208. zk.

Bigarren aroa

Ekainak 18
2013

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Erreportajea

La Agrikolaren
urtebetetzean,
bakailoa protagonista



Kirolak

San Pedro eguneko
klasikoa



ITSASOA MALETA BATEAN

YURRE UGARTE

ILUSTRATZAILEA: ENEKO UGARTE



- 6 Irungo jai egitarauak historian zehar
- 7 Ventas konpainia, aspaldiko loria liburua, **kalean**
- 8 Padel Indoor Bidasoa, Gipuzkoako pistarik onenak
- 10 Haurren lanak Toki Alai LH
- 11 Adituaren aholkuak: nola mantendu harreman osasuntsu bat
- 12 Gazteen lanak: Toki Alai BHI
- 13 Erreportajea: Martindozeneako Gaztelekua
- 14 Gazte informazioa
- 15 Kultur agenda

www.irunero.com
Sar zaituz
web orrian eta
Facebooken



Yurre Ugartek Itsasoa maleta batean liburua plazaratu du

Martiarena S.L.

SISTEMA ELEKTRIKO INTEGRATUAK

Teknologia berriko LED argiak

- ✓ Instalazio elektrikoak orokorrean
- ✓ Dekoraziorako eta industriadako argiztapen azter-lanak
- ✓ Telefono instalazioak
- ✓ Informatika-sareak: ahotsa eta datuak, kobrezkoak zein zuntzezkoak (ziurtagiridunak)
- ✓ Instalazio domotikoak
- ✓ Argiztapen instalazioak zuntz optikoan

Salis hiribidea, 32 behe. Tel 943 630 710 - 609 406 735 - Telekopia 943 639 761
martiarenasl@martiarena.es - info@martiarena.es - www.martiarena.es

Iritzia

IRUNGO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Hiru urte dira jadanik Irungo Udaleko etxez etxe zerbitzuko kudeaketarako enpresa aldatu zenetik. 2010eko urtarrilean Arquisocial izeneko enpresak lortu zuen kudeaketa. Azken urteotan zerbitzuaren egoerak okerrera egin du, bai erabiltzaileei ezarritako baldintzetan, baita langileen lan baldintzei dagokienean ere.

lazko maiatzean, Udalak tarifen berrikuspena egin zuen eta erabiltzaileek ordaindu beharrekoa aldatu zen, kasu batzuetan %300 ere igo zela. Dependentsia legean ezarritako aldaketek ere eragina izan dute erabiltzaileen baldintzetan, askok prezioak ordaindu ezin dituztelarik. Bestalde, egiten den zerbitzuaren kudeaketak okerrera jo du izugarri, langileei etengabeko aldaketak aplikatzen zaizkie euren lan ordutegietan eta kudeaketa txarraren ondorioz (beste arrazoen artean) geroz eta ordu gutxiago kontratatzen dituzte erabiltzaileek.

Apirilean enpresak langileen ordezkari deitu zuen bilera batera, egun indarrean dagoen Hitzarmenetik deskolgateko intentzioa jakinarazteko. Enpresak komunikatu zuen soldata %20an jaitsi nahi duela, joan den urtean jasandako galerak gutxitzeko.

Zuzenean jakinarazi zitzaion Udalari enpresak hasitako murrizketa prozedura, baina langileen ordezkariari komunikatu zaio Udalak legalki ezin duela ezer egin; beraz, berriro ere bakarrik daude euren lan baldintzak defendatzeko. Ez daude prest enpresarekin negoziatzeko; izan ere, enpresaren erabaki honek ez du zerbitzuaren egoera konponduko, enpresaren beraren galerak gutxitzea du helburu.

Langileak ELAren laguntzarekin mobilizazioekin hasi dira. Astero kontzentrazioak egingo dituzte arazoa gizarteratzeko eta soldaten murrizketa prozesua gelditzeko. Horretaz gain, greba egiteko ere prest daude euren lan baldintzak eta soldata defendatzeko, hori baita zerbitzua defendatzeko bidea.

ELA SINDIKATUA



Xabier Kerexeta

Iruren, hau idazteko tenorean behintzat, oraindik ez. Interesgarria, oso, hainbat alderditatik. Gomentatzen dizuet. Gauza pila esaten da, zein baino zen mamitsuagoa. Orain historiari lotuko natzaio. Hobeiki esanda, historiaren pertzepzioari. Izan ere, historialaria naizen aldetik harri eta zur uzten nau Alardeetan ez ezik gainerako emanaldi folklorikotetan ere haien zilegitasuna justifikatzeko historiari omen duen garrantziak. Alderantziz ez ote den... lehenago gure festak goratu eta gero jatorri noblearen bila ez ote gabiltzan, hainen maite dugunak jatorri xume edo batera heroikorik ez duela ezin sintsirik...

Harira: pertzepzio herrikoiak gora-behera, deigarria da, gero, dokumentalean Unibertsitateko ira-

Alardearen aitona-amonak

"Alardearen seme-alabak" dokumentala ikusteko parada izan genuen Donostian apirilean Giza Eskubideen Zinemaldiaren baitan, eta hilabete geroago Hondarribian;

kasle batek kantinerari buruz esana. Historiaz jakin gabe ere, urteen poderioz ilea urdindua dugunok, eta batez ere gu baino zaharragoi entzuteko ohitura dugunok, badakigu nolako eraldaketa izan duen Alardeak oro har, eta hain zehatz kantineraren paperak, gutxienez gerraz geroztik.

Kantineren jatorria erromerietako neskatxa zerbitzariengan bilatzea ez zaio sinesgarri euskal folkloreak pitta bat bedere dakienari, baina tira, absurduagorik esan izan da. Hori bai, kantinera konpainian dagoen elementu ez militar bakarria dela argudiatzea gure historia ostikoka tratatzea da: bera da eta, janzkeraz eta jatorriz behintzat, "herritar armadunen konpainietan" elementu militar bakarria, espainiar armadarena, hain zuzen. Hala dio, behintzat, duela ia hiru hamarkada gure alardeen jatorriari buruzko idazlan mardul batek, bide batez eta besteak beste kantinera apaingarri bat baino ez zela zioena.

Hainbeste gauza aldatu da gure alardeetan azken hamarkada eta erdian! Jatorriak ere pertzepzioen arabera aldatzeraino... denboran atzera egin eta historia aldatzerik bagenu bezala.

San Martzial kalea atzo

Irun atzo Irun gaur



Kalea XX. mendearen hasieran. Iturria: IUA 50381

San Martzial kalea 1859an egin zen Irungo kaleen zerrendan jasota dago. Irungo kale gutxi dute honek adinako oihartzun historikoa, eta denboraren joanean gorabehera politikoen aurrean ere halaxe jarraitu du.

San Martzial nor izan zen: Oso datu fidagarri gutxi dago, haren bitzita kondairan galtzen baita. Limo-

geseko apezpikua izan zen eta Akitania zeharkatu zuen, ongi antolatutako kristau taldeak sortuz. Autore ba-tzuen arabera, 73. urtean hil zen; beste batzuek III. mendean hil zela diote.

Manuel Pikabeak El Bidasoa aldizkarian hauxe idatzi zuen 1917an: "...Historialari zenbaiten iritziz, Martzialek Jesusi eraman zizkion bi arrainak eta bost ogiak, gero hark modu miragarrian ugaritu zituenak. (...) Halaber, Martzial gazteak Jaunari azken afaria zerbitzatu omen zion". Artikuluan aipatzen da kartzelaratu ere egin zutela "(...) Zerutiko leinuru

batek ziega argitu zuen, eta orduan Santuaren eskuak zein oinak lotzen zituzten kateak erori eta presondegiko ateak ireki ziren (...).

1936an, Gerra Zibilaren ondorioz, kaleko 8. zenbakira arteko etxeak suntsitu ziren.

Iturria: Irungo kaleen izenak. Jose Monje.

San Martzial kalea gaur



Kalea gaur egun.

Irunero

Aldizkari hau Irungo Udalak diruz laguntzen du



Erredakzioa eta maketazioa:

Ana Grijalba

agrijalba@irunero.com

Kirolak: Mikel Mancisidor

Euskara zuzentzailea: Xabier Kerexeta

Publizitate kudeatzaileak:

Sonia Garcia Olazabal, Rosa Borrallo,

Lara Cañizo

lara@irunero.com, rosa@irunero.com,
sgarcia@baseclick.es

Argitaratzailea: Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

www.irunero.com


“Irudimena ezaugarri garrantzitsua da bizirauteko”

Yurre Ugarte idazle tolosarra aspaldi errotu zen Irunen. Gurean hain hurbileko elementu dugun ura *Itsasoa maletan batean* bere azken liburuaren haria da, hain zuzen ere. Haur literaturan murgildu da oraingoan, DENONARTEAN argitaletxearekin eskutik oratuta. Erritmo biziko abentura irun du, ederra eta jostagarria.

Yurre Ugarte, idazlea



Ezkerrean, dagoeneko salgai dagoen liburuaren azala.



Peruk bere aitaren maleta beltza gorroto du, han sartzen baititu munduko gauza inportanteenak, semearekin egoteko astirik ez izatearen aitzakia direnak.

- Peruk irudimena martxan jartzen du ihes egiteko, haurrek duten tresna preziatua.

Irudimena denok daukagu, baina umeek puri-purian dute. Hezkuntzak, kulturak, familiak... mugak jartzen dizkio. Pertsona askok heltzean irudimena galtzen dugu. Istorio honetan gertatzen diren egoera bezain jasaezinetatik irteteko irudimena da tresna. Honen bitartez protagonistak bere bizitzari zentzua ematea lortzen du. Irudimenak abentura bat bizitzea ahalbidetzen dio eta horretan bere nortasuna finkatzen du.

Irudimena bizirauteko ezaugarri garrantzitsua izan daiteke.

Gurasook etekina bilatzen dugu, baina haurren munduan jolasa eta esplorazioa nagusitu beharko lirakeke

- Ura ere protagonista da. Zergatik?

Umeak putzu batean sartu eta guztiaz ahaztu daitezke. Izan ere, umeek egunero elementu arruntenaren bidez ere abenturak bizi ahal dituzte.

- Istorioaren testuingurua oso erreala da, hainbat haur Peru bezala sentitzen direlako.

Baldintza ekonomiko, sozial eta kultural jakinetan gatoz mundura. Guraso gehienak, lana dutenak nahiz langabezia dau-

denak, lanaren etikan murgildurik daude. Horrek haurrekiko harremana baldintzatzen du. Etekina bilatzen da, baina etekinaz haratago haurren munduan jolasa eta esplorazioa nagusitu beharko lirakeke.

- Abentura edo bidaia batean murgiltzen dira bai haurra eta bai familia.

Semeak bere bidaia egiten du eta familiak ere bai. Bidaiak denei irakasten die zerbait.

Istorio on guztiek lilura pizten dute eta une batez besterik ez bada ere hori lortu badut, bada, pozik nengoke.

- Eneko Ugarteren ilustrazioek lagunduta dator. Zein dira ezaugarriak?

Oso zuzenak dira, ez dira batere barrokoak.

Azaleko haurrena poliziak egiten duen Peruren erretratua da: martziano itxura dauka. Halaxe ikusten dugu helduok sarri

haurren mundua.

- Nolako harrera izan du lanak orain artekoan?

Jaso ditudan haurren iritziak, baita helduenak ere, oso onak izan dira. Zortzi urtetik gorakoentzat gomendatutako liburua da.

- Hurrei zuzendutako bilduma baten lehena izan da.

Bai, DENONARTEAN argitaletxeak orain arte umeentzako ipuin ilustratuak plazaratu ditu. Nireak 8 urte baino gehiagokoei zuzendutako bilduma baten lehena da.

- Batik bat helduentzako lanak egin dituzu. Zergatik orain haurrentzakoak?

Haurren mundua gertutik ezaguna dut. Maleta batetik abiatzen den istorio honek ni aukeratu ninduen, ideia bat daukanean ez baitut pentsatzen haurrentzat edo helduentzat den.

Kids & Nits
Zorriak eta bartzak kentzeko zentro espezializatua

Produktu kimikorik gabe

Iparralde hiribidea, 1 - IRUN
943 633 236

Bakarrik
90' min.
Eta agur zorriak!

Eva Pascual
Argazkilaria

www.evapascual.com
653 71 09 48
www.facebook.com/EvaPascualFotografia

XOLDOKOGAINA (486 m)



Bertatik bertara zergatik ez?

Urruntasunak zorabiatu abiatu nintzen. Bai bainekien, nire ustez noski, alboan nuena baino ederragoa izango zela; zalantzarik, ala? Ibili nituen bideak, egunak... ezagutu nituen herri eta bazter miragarriak, dastatu nituen janari eta edari exotikoak, baina azken egunean gure etxe ondoko mendiarekin egin nuen amets: Xoldokogaina. Iratzarri eta bertara joan arteko onik ez nuen izan.

Zeren bila zabilta, bada, turista, urrutira gabe ditugunak ezagutu gabe? Biriaturko Larretzeko bordatik abiatu naiz, ezker-eskuin iratze erne berria lagun dudala. Kalbariorako bidea ezkerrean utzita "Beti goiti", eskuineko trikuharria behatu eta ait-zinerat. Usaitako lepota iritsi naiz; goraxego dago bertako trikuharria. Bidean kamamila bildu dut. Laino zegoen arren, gora iristerako eguzkia izan dut lagun. Ikusmira ederreko mendia: itsasoa, Belarra izeneko uhin berezia, Iparraldea, Landak, Irun, Hondarribia, Jaizkibel, Hernio, Aiako Harria, Bianditz, Larrun... GR-10 Hendaia- Catalunya GR-10aren lehendabiziko gaina, mendebaldera Bidasoa ibaia dela. Granito-harria da bertako ikur; Euskal Herriaren antzinatasuna islatzen duen lekuko zaharra.

Iratzea, txilarra eta otea dira nagusi. Ortzian, berriz, sai edo putreak eta nonahi ardi, ahuntz, pottoka eta behiak.

Ur-leku aparta; ipar isuriko ur-jauzia it-

sasoari begira dago eta lehorte handie-
nean ere ez da agortzen; horregatik, ihiak
indar handia du, baita gailur-gailurrean ere.

Gaineko irudipean:

Hire irri-parrak

Zabal ditzan

Hego eta iparrak

Igoa' tar losune (97ko abenduaren 12an)
Hormako txartelean: Xoldokogaina (486
m.) Jaizkibel elkarte (Pasai Antxo).

Hegoaldera Osingo lepota jaitsiko gara;
izenak putzua erran nahi duenez, berriz
ere, ihiek emango digute aztarnaren berri.
Pitarreko harrespiletatik Manddaleko gai-
nera (573 m.) joko dugu patarrean gora,
gorostia bidezidorraren ezker-eskuin dela,
Faalegi mendiko pagadiaren babesean.

Historiari lotuz, Bruselan 1940an na-
ziengandik ihesi borrokalari aliatuei -ge-
hienak ingeles abioi-pilotuak- alde egiten
laguntzeko sortu zen franko-belgikar orga-
nizazio bat zen Comète sarea. Hemen-
dixe igarotzen omen zuten muga eta
Bidasoa, okupaturiko Europa gurutzatu
ondoren, Espainiako atzerriko enbaxaden
bidez Gibraltardik zehar berriro ere be-
raien sorterrira joan zitezten.

Gailurrean datza estatu arteko 9. muga-
ria. Xoldokogaineko ikusmiraz gain, are
gehiago edonora behatuta ere.

Iparraldean den urtegiara jaitsiko
gara Xoldokogaina mendia inguratuz.

Arrola ibaiak eman behar lioke izena urte-
giari, baina... Inguruan hurritza da errege.
Urtegiaren hormako ezker aldeak erakut-
siko digu ubidearen gainean doan bidea,
Filtra deritzon trikuharria eta ehiza-leku-
raino bitartekoa.

Kalbario gaina da gure hurrengo helbu-
rua. Horretarako, argindar zutabe erral-
doia dagoen Usaitako lepota abiatuko
gara, errekaldeko borda eta sarioa esku-
inean dugula. Zertxobait igotzea besterik
ez zaigu falta, Kantauri itsasorantz begira
aparteko beste ikusmira-leku bat topat-
zeko. Urruñako Kalbarioan gaude; base-
liza eta guzti.

Duela hamarren bat urte tximistak
zurezko gurutzea apurtu zuen. Gaur egun
berrituta dago eta inguruan zenbait haritz
eta urki ere landatuta daude.

Ibilaldi guztian zehar aipatu dugun ihia-
rekin egingo dugu berriro ere topo. Gain-
gainean, eguraldi euritsuen ondoren putzu
edo osina sortzen da. Aitzinean itsasoa
eta gibelean mendia; zer besterik nahi iza-
ten du, bada, gizakiak?

Hurbil dugu abiapuntua. Nahi izanez
gero, errekalde aldera jaitsi eta Biriatura
ere joan gaitezke. Herriko etxea, plaza,
frontoia eta hilarri zaharrez josita inguruak
ez digu kalterik egingo.

*Jexux Aizpurua Barandiaran
(Irun-Oiasso)*

Baselizaren historia

Historia polita du baselizak. Di-
rudieñez, Erlandebaitako Four-
cade ikerlariak XVIII. mendeko
paper zaharretan topatu zituen
zenbait aztarna: 1793. urteko
espainolen aurkako gerran sunt-
situ egin omen zuten. Bertan er-
mitau edo apaiz bat ere bizi
omen zen han bakar-bakarrik.
1966an inguruan ez zegoen ba-
selizaren aztarnarik eta 1967an
udako bakantzez baliatuz eta
ikasle batzuen laguntzaz, kape-
raren murrerik zimentuak (8,30 m.
/ 5,70 m.) eta zolako harlauzak
eta aldarearen zati bat aurkitu
zitezten.

Aitzakia horrekin, Sokorriko
Amaren Lagunak deituriko bata-
sun edo elkarte egin zuten eta
berreraikuntzari ekin zioten. Pie-
rre Albizu izan zen hargina eta
Sokoako Jean Devín zurgina. 8
metroko haritzeko gurutzea ere
zutikatu zuten.

1969ko ekainaren 8an inau-
guratu zuten. 1990ean parro-
kiak zera erabaki zuen:
garizumako 1. igandean proze-
sioa egitea bidean bi geldialdi-
ekin; geldialdi bakoitzaren
gunean alimaleko bi harri ezarri
ziren; batean BETI GOITI dio
eta bestean JAINKOAREN
MENDIRAT.

bidasoaldia.com

Bidasoa Eskualdeko Egunkari Digitala



Ezkerrean, Alberto Santiago, Sonia Garcia Olazabal, Joxe Mari Barriola, Carlos Sagastizabal eta Felix Manso. Goian, mahaietako bat.

La Agricolaren urtebetetze afarian, bakailaoa protagonista

La Agricolako nagusi Carlos Sagastizabali jatetxearen bigarren urtebetetzea ospatzea otu zitzaionean, Gaztelumendi-Antxoneko Felix Manso chefarekin harremanetan jarri zen. Handik aitzina, hilabete eta erdiz, sukaldean elkarrekin aritu ziren bakailaoa ardatz izango zuen menu berezia apailatzeko. Esplorazioa, irudimena, jolasa, sormena. Lau hitzetan laburbil daiteke esperientzia. Ekainaren 12an La Agricolara bildu zirenek lanaren emaitzaz gozatu zuten.

Bi lagun elkarlanean, lagunak limurtzeko.

Izozki antza zuen kornetea izan zen bazkaltiarrek dastatu zuten estreinako gutizia. Tontorrean mahats-pasez betetako bakailao tripakia zeraman eta beste hiru geruza zituen: bakailao krematsua, parmigiano gazta eta, kukurutxoaren bukaeran, txokolate pittin bat.

Kabrarroka-kremazko ogi txigorraren ondoren, bakailaora buelta, hirukote batez lagun-duta: piper erreak, gazta eta intxaurrekin, guztiak ekialdeko zaporeen ukitua zeukala. Arrautza Arabako patata bioletekin eta ondoekin aurkeztu zuten. Bakailao-azpizuna, berriz, errege-sagarrezko saltsarekin eta bizkaitarrekin. Azkenik, kataluniar krema Armagnacez, platanozko izozkia-ekin eta almendrekin.

"Bakailaoa menuaren osagai nagusitzat erabili dugu izugarri atsegin dudalako eta produktu hau sukaldatzen esku ona dau-

kadalako", adierazi zuen Carlos Sagastizabalek. "Oso gustura sentitzen naiz bakailaoa prestatzen".

Bakailaoaren hautaketa

"Bakailaoa Dasta Ezazu" Bidasoako bakailao enpresen elkartea arduratu zen afarirako maila goreneko bakailaoa aukeratzeaz. "Tripakia arrain honek berezko duen maskuria da", azaldu zuen Alberto Santiago enpresariak. "Bertara sartzen duen aire kopuruaren arabera uretan igotzeko edo jaisteko baliatzen du". Bakailaozko lehendabiziko platera lantzeko, kilo bat baino gehiagoko arrainen solomoak hautatu zituen, eta nagusirako, 2 kilotik gorakoenak.

Ardoak

Luxuzko menu hau laguntzeko ardoen hautaketa Satrustegi ardo banatzaileen enpresako Alberto Estebanen lana izan zen. Onartu zuen ez zela kontu erraza izan, "bakailaoak ezau-

garritzen zuelako menua". "Ohiko menuetan, ardo zuria-ekin hasi eta beltzarekin bukatzen da, baina oraingoan justu aurkakoa egin dut". Hasierako urdaiazpikoarekin Toroko Madremia beltz-beltza uztartu zuen. Bi pintxoek Errioxako Martinez Alesanco ardandegietako upelan hartitutako zuria izan zuten lagun, "arrainari ongi dagokiolako".

"Ondoren, arriskatu egin nintzen, aipatu ardandegietako ardo beltz gaztearen aldeko apustua egin bainuen; hau da, beltza eta arraina uztartu nituen". Arrautzarekin edateko, Laus gorria hautatu zuen, eta bakailao-azpizuna bustitzeko, Albariño bat, Rias Baixas jatorri-izendapeneko.

"Postrearekin, Ruedako Yllera merkaturatu duen berrikuntza bat: verdejo frizzantea, gozoa, alkohol gutxikoa, oso erraz edaten dena".

Sukaldean loreak mozten.I



Bakailaoa piper gorrien gainean, gazta eta intxaurrekin.

Argazkiak:
Eva Pascual



Arabako patata bioleta frijituak.



Barriolak urdai azpikoa moztu zuen

"Barriola Ebakitzaile Maisuak" enpresako Joxe Mari Barriolak, aperi-tifa gisa eskaini zen urdaiazpikoa hautatzeaz gain, bertan ebaki zuen. "Kordoban jaiotako txerriarena da, gero Burgosen ondutakoa, hiru urte eta erdiz". "Denbora hori igarotakoan urdai azpikoa bere heldutasunean dago", esan zuen adituak. Mimo guztiarekin eta goi mailako teknologiaren laguntzaz hazi eta ondutakoa dela azpimarratu zuen. "Ezaugarri guztien gaintik produktua moztu berritan jatea da sekretua".

Jaietako egitarauak

Irungo artxiboan gordetzen den jai egitaraurik zaharrena 1906ko da. Orrialde honetara hamarkada guztietako irudiak ekarri ditugu.

Iturria: Irungo Udal Artxiboa



1912. urtea



1983. urtea



1928. urtea



1948. urtea



1960. urtea



1991. urtea



1931. urtea



1950. urtea



1974. urtea



2007. urtea



1937. urtea

BAKAILAUA DASTA EZAZU



Ventas konpainia, aspaldiko loria liburua idatzi du Migeltxo Martiarenak

Duela bizpahiru urte Migeltxo Martiarena hainbat bizilagunei bisitan joaten hasi zitzairen, Alardearen inguruko oroitzapenez galdezka. “Gu hiltzean gurerekin joango dira bizipen ugari”, esaten zioten bizilagunek. Bada, hori gerta ez zedin bildutako informazio, pasadizo nahiz argazki haiekin liburu bat apailatzera deliberatu zen.

Emaitza euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako lan mardula da. Auzoaz eta auzoan idatzitako estrai-neko lana dugu.



Antton Alzaga, Migeltxo Martiarena eta Iñaki Arruabarrena, liburua aurkezten.

“Pertsonen bizipenak jaso eta zabaltzea merezi duela uste dut eta, bestetik, Alardearen funtsa eta izaera ezagutarazteko aukera ematen zidan lan hau egiteak”, azaldu zuen egileak aurkezpen ekitaldian.

Migeltxok Ventas konpainiako kapitan dagoen Antton Alzaga izan zuen lagun ekitaldian. Bere iritziz, jasotako material guztiaren argitan “hemendik urte batzuetara lan hau altxor txiki bat izango da”. Halaber, Iñaki Arruabarrena Alarde tradizionalako jeneralak egindako ahalegina eskertu zuen. “Bai, eskertzekoa da Alardean 365 egunez pentsatzen duen jendea egotea”. “Liburuak sentimenduk biltzen ditu eta Alardea horixe da, sentimendua eta urte guztian zehar lanean diharduen jendea”.

Hiru zati


Liburua 3 zatitan banaturik dago. Lehenengoa euskaraz idatzirik dago, bigarrenak hainbat argazki biltzen ditu eta hirugarrenak euskarazko zatiaren gaztelaniazko bertsioa da.

Hamabi atal dauzka lanak: Konpainia mantentzearen garrantzia, San Martzial Alardearen historia, Alardearen kronologia, Bertan behera uzteko saiakerak, Nola bizi du Alardea gure konpainiak, Zapia Alardean, Sasi Alardea 1939an, Ba al zenekien?, Elkarrizketak, Konpainien zerrenda, Alardeko partaideen kopuruak eta Argazkiak.

Liburuaren 400 aleak honako saltokietan eros daiteke, 15 eurotan: Ventaseko estankoa Super Larrean Ongi Etorri tabernan Landetxa liburudendan



Migeltxo Martiarenaren gurasoak, Patxi eta Carmen, San Martzial egun batean. Eskuinean, liburuaren azala.



Mozorroak eta osagarriak
AU PALAIS DE CRISTAL
Su artifizialak eta euskal jantzi tradizionalak
Palais du Cristal. 16 Rue du Port. Hendaia. +33 (0) 559 483758





Ezkerrean, pisten ikuspegia. Goian, Gipuzkoako Txapelketa Padel Indoor Bidasoan jokatu zeneko irudi bat.

Padel Indoor Bidasoa, Gipuzkoako pistarik onenak

Ezaguna da Irunen kirol desberdin asko lantzen direla, espezialitate anitzen elkarteak badaudela eta beraz irundarrek kirola egiteko aukera ugari dituztela. Apirilaren 21az geroztik, gainera, Irunen badago beste kirol mota batez are gehiago gozatzeko parada: padelari buruz ari gara.

Lehen ez zegoen padelean jokatzeko aukera askorik Irunen, eta egoera hura hobetzeko, zazpi bazkideren artean sortu berri dituzte Landetxa auzoko Bidaurre-Ureder poligonoan Padel Indoor Bidasoa instalazioak.

Huntz Gartzia bazkidearen esanetan, "ikusitako gipuzko inguruan bakarrik Donostian zeudela padel hutseko klubak, eta Espainian gora dihoan kirola denez, bada, negozio hau sortzea erabaki genuen. Gainera, hemen euri asko egiten duelako ideia ona iruditu zitzaigun pista estaliak eraikitzea. Hortik Padel Indoor Bidasoa izena".

Lau pistaz osaturiko pabilioia da, leku bikainean kokaturik, autobidearen eta N-1aren ondoan, hain zuzen ere. Aparkaleku pro-

pioak ditu eta atsedeen gunean Wifi estaldura dauka. Hortaz, esan genezake erosotasun guztiez hornituriko instalazioak direla. Baina, horretaz aparte, teknikoki goi-mailako pistak dira. Huntz Gartzia negozioaren bazkide izateaz gain, azpiegituren arduraduna ere bada. Beste instalazio batzuen aldean, Bidasoakoek zenbait elementu ezberdin dutela azaldu du. "Normalean fokuak izaten dira lurretik gora poste batzuekin jarriak, baina guk goitik beherantz leku aproposan jarriak ditugu. Halaber, belarrak m²ko 63.000 sastada ditu; pista arruntek, berriz, 47.000. Aipatzekoa ere bada belar bakoitzak zain bat duela, zapaltzen duzunean altxatu egiten dena, belarra zapaldua gera

ez dadin, eta hori oso ezaugarri berezia da. Bestalde, kristalak 10 milimetrokoak izan beharrean 12 milimetrokoak dira, segurtasun gehiagorako. Gauza hauengatik guztiengatik esan dezakegu Gipuzkoako pistarik onenak ditugula padelean jokatzeko".

Padel Indoor Bidasoak kirol elkarte gisara ere egiten du lan, baina bakarrik txapelketa federatuak prestatzeko. Izan ere, maiztaren lehenengo astean Gipuzkoako taldeen arteko txapelketa antolatu zuen, eta litekeena da etorkizunean maila altuagoko lehiaketak antolatzea. Instalazio hauetan jokatzeko ez da bazkide izan behar, ezta kuota ordaindu behar ere: izena eman besterik ez. Jokalari bakoitzak web orrian pisten erreser-



Gipuzkoako Txapelketan parte hartu zuen emakume talde bat.

bak ikusi eta web orritik bertatik erreserba egin dezake nahi duen orduan jokatzeko. Jokatu ostean, bertan ordaintzen da eta kitto. Orain arte 260 pertsona inguruk izena eman dute Padel Indoor Bidasoan, eta, egia esan, *jaioberri* batentzat ez da zenbaki makala. Huntz Gartzia zehaztu du 18 urtetik 65 urtera arteko jokalariek erabiltzen dituztela instalazioak. "Gu maila berdineko partidak antolatzen saiatzen gara: jokalariek

maila ezberdinetan sailkatzen ditugu eta arduratzen gara bakoitzak bere neurriko aukaria izan dezan. Padela oso kirol eroso da, fisikoki ez duzu oso prestatua egon behar ondo jokatzeko. Nire ustez horretan dago kirol honen arrakastaren gakoa". Instalazioak astelehenean ostiralera 9etatik 22:30era irekiak daude. Larunbatetan, 9etatik 14etara eta 16etatik 21etara. Igandeetan 9etatik 14etara.



- Indoor zikloa
- Tonifikazioa
- Pilates
- Step
- Zumba
- Muskulazioa

- Karatea: haurrak/helduak
- Tai chi
- Defentsa pertsonala
- Kick boxing
- Brasil Jiu Jitsu

San Pedro Klasikoa, 1896tik 2013ra pedalei eragiten



1.- lazko podiuma: Antton Iburguren (txapelduna), Miguel Angel Benito (2. sailkatua) eta Andres Sanchez (3.a). **2- Taldekideak:** Antton Iburguren eta Miguel Angel Benito. **3- Talderik onena:** 2012an Lizarte izan zen talderik onena.

“Irunen ospatzen da Espainiar estatuko txirrindularitzako lehiaketarik zaharrena, eta beste bat baldin bada, norbaitek frogak mahai gainean jar ditzala”, Juanjo Garagarza Irungo Txirrindulari Elkarteko lehendakariaren hitzak dira, San Pedro Klasikoari buruzkoak.



Aurten Irungo elkarte honek San Pedro egunean, ekainaren 29an, lehiaketa klasikoa 94. edizioa antolatuko du, 1896. urtean lehendabiziko aldiz eginiko txapelketari jarraipena emanez.

“Irungo Udal Artxiboan ageri den moduan, Kolon ibilbidean San Pedro egunean 1896. urtean jada egiten ziren txirrindulari lasterketak, eta guk dakigunaren ariora estatu mailan ez da existitzen zaharragorik”, dio Garagarzak. Hori bai, aurtengoa 94. edizioa izango da, Gerra Zibilagatik urte batzuetan ospatu ez zelako.

Guda ostean, San Migel auzoko txirrindulari elkarteak antolatzeari berriro ekin zion, eta elkarte hau desagertu zen arte San Pedro Klasikoa bere esku egon zen: 1990. urtera

arte, hots, Irungo Txirrindulari Elkarteak hartu zuen unera arte.

125 kilometroko lasterketa polita da San Pedro Klasikoa. Irteera Irungo Kolon ibilbidean goizeko bederatzi eta erdietan dauka, eta helmuga leku berean ordu batean izango da. Irteera jaurtia Behobian emango da eta Nafarroako errepideetatik pasako da. Beratik, Sunbillatik, Doneztebetik, Mugairitik eta Almandoztik igaroko da norgehiagoka Zigako mendatera heltzeko. Jarraian, Iruritatik jaitsiko da, berriro ibilbide bera egiteko, baina alde-rantziz, Irunera heltzeko.

Juanjo Garagarzaren esanetan, “lehenengo zatia ez da oso gogorra, litekeena da Irunera arte tropela multzoan

joatea; baina Klasikoaren gogortasuna azkeneko kilometroetan dago. Behin Irunen, Behobia pasa eta Udaltzaingoaren egoitzean ezkerretara joko du, Ibarlarako bidean barna, eta Ola Sagardotegitik Erlaitz mendatea igoko du. Hortxe erabakiko da lasterketa”, azaldu du. Erlaitzetik Gurutze aldera egingo du eta Irunera Katetik sartuko da, eta ondoren Letxunborro hiribidea eta Hondarribia kalea igaroko ditu.

San Pedro Klasikoa Euskal zirkuituan sartua dago, eta zirkuitu honek berrogei bat lasterketaz osatua dago. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako taldeek parte hartzen dute, eta eliteko eta 23 urtetik beherako txirrindulariak bertan lehiatzen dira. Hauez gain, baliteke San Pedro Klasikoan Iparraldeko taldeak ere egotea.

Irungo Txirrindulari Elkarteko lehendakariak aipatzen duen bezala, “Café Baqué eta Seguros Bilbao bizkaitarrak, Debabarrena eta Azysa gipuzkoarrak, eta Lizarte eta Caja Rural nafarrak dira Irunen egongo diren talderik hobeenak. Pasa den urtean 90 txirrindulari eduki genituen, aurtun espero dugu 100 bat lagun biltzea. Horrek esan nahi du 12 talde inguruk parte hartuko dutela”.


Azken urteotan profesioalera pasa diren txirrindulari mordo batek irabazi du Kolon ibilbideko helmugan. Ricardo Otxoa, Igor Astarloa, Gorka Verdugo, Oscar Pujol eta Yelko Gomez dira horren adibide. 2012. urtean Caja Ruraleko Antton Iburguren lezotarrak irabazi zuen, Miguel Angel Benito taldekidearen eta Lizarteko Andres Sanchezen aurretik. Aurten ere Irunen egongo da, garai-pena errepikatzeke asmoz.

COMPRO ORO Y MÓVILES

Kolon ibilbidea, 41
943 610932 IRUN

Toki Alai LH

Tipularen mintzak aztertzen



Toki Alaiko 6. Ako ikasleak gara. Gelan egindako esperimentu bat kontatuko dizuegu. Tipularen mintzak nola aztertu izango da gure esperimentua.

Helburua:

Gure helburua tipula baten zelula nolakoa den ikustea da, eta mikroskopioaren erabileran trebatzea.

Materiala:

Tipula, porta, pintzak, alkoholezko metxeroa, metileno urdina edo iodoa, mikroskopioa, ura eta papera.


Prozedura:

- 1.-Lehendabizi, hostoak barruan dituen mintzak pintza batekin kontu handiz atera.
- 2.-Ondoren, portan txukun-txukun tolesturarik gabe ipini. Mikroskopioan ikusi, aire poltsarik gabe.
- 3.-Orain, tipula azalaren gainean metileno urdina edo iodoa bota. Biak koloratzaileak dira eta horiei esker zelulen nukleoa ikusiko dugu.
- 4.-Jarraian, metxeroarekin likidoa berotu baino lehen, ur tanta batzuekin garbitu, metileno gehiegi izanez gero.
- 5.-Azkenik, gertakina mikroskopioan aztertu.

Marraskia:

Goian azaltzen den marraskia egin genuen gure koadernoan, eta gelan dugun argazki makinarekin dauden argazkiak atera genituen. Puntu laranja zelulen nukleoa dira. Politak, ezta! Gure munduan zientzia da dauden gauzetatik garrantzitsuenetako bat. Zientzialariek behin eta berriz aztertzen dituzte zelulak gure bizitza hobetzeko. Zientzialariek zelulak klonatzeko modu bat aurkitu dute, gure organoak gaixorik baldin badaude, sendatzeko eta botika berriak egiteko. Galzorian dauden animaliak klonatzeko eta ez galtzeko ere. Eskolan zientzia ikastea esperimentuen bidez oso garrantzitsua da, horrela mundua hobetzeko aukera izango dugulako.

Nerea Lara, Iratxe Parra eta Julen Ansola.



Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Iruneroko lantaldeak San Martzial jai zoriontsuak
opa dizkie irundar guztiei

Nola mantendu harreman osasuntsu bat



Zer da SEXUALITATEA? Sexualitatea garena da, sexudun jaiotzen gara eta. Beraz, sexualitatea gure baitan da, pertsona baten osasun-, ongizate-, plazer-sorburua ez ezik eskubide bat ere bada. Pubertarora iritsita, aldaketak gorputzean nabariak dira (ilearen sorrera pubisean, ugatzen handitzea nesken kasuan, eta abar), eta iraultza hormonal horrek sexuarekiko jakinmina ere areagotzen du (lehen musuak, lehen laztanak, lehen maitemina...). Maitasun harremanek sentimena, emozio eta sentsazio positibo eta bizi biziak eragin ditzakete, baina baita negatiboak ere, oinazea eta guzti. Dena den, beti sortzen dituzte ikaspen eta esperientzia berriak. Harremanetan alderdi positiboak eta negatiboak nahastu diren etapak iragatea arrunta bada ere, harreman bat mantentzeak zentzua izango du gehien-gehienetan ekarpen positiboak egiten badizkigu. Bi pertsonak harreman batean gustura badaude, elkarrengandik gozaten dute, elkarrekiko errespetua erakusten dute eta ziur aski harreman osasuntsu bat mantentzen dute.

Konfiantza eta zintzotasuna garrantzi handiko faktoreak dira harreman batean

Zer da harreman osasuntsu bat?

- Beste pertsona den bezala gustatzen zaigu, bere bertute eta akatsekin, ez dugu hura aldatzeko asmorik agertzen: harekin nago den bezala gustatzen zaidalako; horregatik, neuk ere ez dut garenaz beste agertu behar hari gustatzeko.

- Gustura egiten ditugu gauzak elkarrekin. Inposizioek harremana kaltetzen dute. Beraz, egin nahi duguna adostu egiten dugu, ez dugu beti egiten bikotekideak

nahi duena. Bataren iritzia eta erabakiak bestearen bezain inportanteak dira. Beste pertsonaren mugak errespetatzen ditugu.

- Bakoitzak badu beretzako eta banandurik gauzak egiteko denbora: neure espazioa daukat, neure senide edo lagunentzako, edo nahi dudana egiteko.

- Konfiantza eta zintzotasuna garrantzi handiko faktoreak dira harreman batean. Gure sentimena, sentsazioak eta emozioak konfiantza osoz adierazten ditugu, bestearen erreakzioaren beldurrik gabe.

- Gatazka bat sortuz gero, bioi komeni zaigun irtenbidea bilatzen ahalegintzen gara, elkarrizketa eraikitzaileaz eta negoziazioaz, inposiziorik, mehatxurik edo xantai afektiborik gabe ("benetan inporta banatzaizu...")

- Komunikazio asertiboa oso inportantea da harremanetarako, errespetuz komunikatzen garelarik.

- Harreman sexualak adostuta izaten ditugu, biok nahi ditugulako.

- Ez gaude zain beste pertsonak zoriona noiz emango.

- Beste pertsonak aske izateko eta bere burua zaintzeko eskubidea aitortzen dugu.

- Pertsona desberdinak garelako errespetatzen dugu. Bestearen proiektuak eta erabakiak babesten ditugu.

- Genero-berdintasuna aitortzen dugu harremanean, menperatzaileak eta menperaturik gabe.

- Bietako batek harremana bertan behera utzi nahi badu, problemarik gabe planteatu dezake, besteak iritzia errespetatuko duelakoan, nahiz eta ez gustatu edo mingarri zaion.

Dena dela, oraindik harremanik ez baduzu, hartu patxadaz, presarik gabe. Saiatu jende asko ezagutzen. Pentsa ezazu, bakarrik egonda ere, ez zarela "zomorro" bat, inork ez duelako beste bat ondoan beharrik izaten erabat zoriontsu sentitu eta izateko.

Raquel Calvo Pérez

Sexologoa eta gizarte-hezitzailea



La agrícola
J A T E T X E A

Eguneko menuak, osteburukoak, karta,
mota guztietako ospakizunak

Alzukaitz, 1. IRUN Tel: 943 244 118

Munduko iririk politena

Munduko iririk politena bilatzera bidali ninduten hona. Izarretatik jaistean, iluntasuna besterik ez nuen antzematen nire aurrean, zeruko distiraz itsututa bainegoen. Pertsonak triste zeudela ohartu nintzen, itzalita, hutsak baleude bezala. Eta behin eta berriro errepikatzen ziren asteak, hilabeteak eta urteak. Baina ez nuen aurkitu bihotza ukitu zidan iririk. Izan ere, inork ez zirudien guztiz pozik.

Itsas-bazterrean nengoen, negar-malko urdinak egunsentiko olatu urrekaretan isuriz, kontsolatuko ninduen itsasneska irribarretsu baten zain. Orduan, ahots ezti bat entzun nuen oso hurbil, ulertu ez nuen hizkuntza batean mintzatzen zena.

Momentu hartan ikusi nuen munduko iririk politena, ezpain goxo batzuetan marrazturik. Lurralde ezezagun eta ahoskaezin batetik etorritako neskatxarena zen, egunero bizitzeko arrazoi bat ateratzen zuenarena. Ez zen deusen jabe, ez zen inor, baina bizitzara iritsi berria zen arren askok hil aurretik lortu ez dutena zeukan: irria aur-

pegian ipin-tzeko adina ausardia. Guk guztiok dugu geure barrenean munduko iririk politena, hor nonbait ezkutatua dagoen altxorra, baina gutxi batzuk soilik lortzen dute mirari hori bere buruari eta ingurukoei oparitzea. Eguna alaitzen diguten pertsona berezi horien omenean, lokartu aurretik beti pizten dut izartxo zuri bat ilunabarrean, ametsak gidatzen dituen itsasargia balitz bezala, aldi berean ikusten dutenei munduko iririk politena pizteko.

*Nahia Perez de Villarreal 2. D
Toki Alai BHI.*



PINTEREST, IRUDIEN SARE SOZIALA



Pinterest puri-purian dagoen sarea da, askorentzat, emakume askorentzat bereziki, aisialdirako ezinbesteko baliabide bilakatu baita.

Baina... zer da Pinterest?

Gogoratzen dituzu nerabegaroko

karpeta haiek, aldizkarietako argazkiz eta irudiz beteta zure interesen edo nortasunaren berri ematen zutenak? Batzuetan logelako hormak ere irudiz betetzen genituen. Bada, Pinterest horrelako zerbaite da: zure lagunekin partekatze erakuslehoak (boards delakoak), non edukiak alda ditzakezun.

Batzuek argazkiak erakusteko erabiltzen dute; beste batzuek, gustuko arropak edo hobien irudiak agerrarazteko.

Argazki bakoitzak deskribapen bat eta komentarioak eraman ditzake; "atsegin dut" jar daiteke, edo web baterako esteka. Gainera, beste erabiltzaile baten irudi bat gustuko badugu (pin), guk ere "berpinatu" dezakegu, geure erakuslehoetan irudikatze. Gauden egunotan gaudela, sanmartzialetako argazkiak partekatze aukera galanta da.

Hona hemen txukun erabiltzeko gako batzuk:

1. "Igo" zeure materiala, ez mugatu "birpinatzera". Azaldu zure sormena eta originaltasuna.
2. "Pinatu" toki desberdinetako irudiak, ez edan beti iturri beretik. Zure erakuslehoak oparoak izango dira.
3. Ez sartu testu gehiegi deskribapenean; erabili hitz martsuak eta harira joan. Pinterest irudiak eta ikusgaiak partekatze plataformak bat da.
4. Miatu Pinterest sarean eta ikasi zeintzuk diren erakartzen zaituzten pinak, eta zergatik, zure edukietara moldatu eta zure jarraitzaile kopurua handitu ahal izateko. Pinteresten, beste sareetan bezala, funtsezkoa da arretaz begiratzea eta ongi dabilena ikastea.
5. Elkarreragin zure jarraitzaileekin: komentarioak primerako baliabidea dira gizarteratzeko eta lagunak egiteko.
6. Ez da beharrezkoa erabiltzaile baten jarraitzailea izatea haren erakuslehoetatik bakarrik interesatzen bazaizu: hartan bakarrik izenpetu zaitezke.
7. Txertatu Pinterest botoiak zure beste plataformetan, batik batik zure blog o webean.
8. Ba al zenekien bideoak ere "pinatu" daitezkeela? Tamalez, ezin dira Youtubenak baizik bideratu. Gure erakuslehoak ezagutu nahi badituzu, eta gure pinetan barna paseatu, 3yMedia ia egunero igotzen du intereseko zerbaite.

Pablo Moratinos

Marketing Online-ko aholkularia. 3yMedia Comunicación Digital



zure enpresari
internetetik zabaltzen
laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



www.3yMedia.net



1- Dantza taillerra Gaztelekun.
2- Opil tailerra.
3- Break, Belaskoeneko jaietan.



Irun Breakeko breakerak.

GAZTELEKUA

GAZTERIAREN TOPALEKU IREKIA

Irungo Udalaren Gazteria Sailak bere jarduera eskaintza berritu du. Ekinbideak alorren arteko lotura estuagoa izango du aurrerantzean. Gazteengandik datozen proposamenei erabat irekitzea eta erantzuna ematea da jomugarik behinena. Martindozenea Gaztelekua zutabe nagusietako bat da jorratzen ari den bide honetan.

Antzerkia, komikia eta bideoa Gazteria Sailaren ardatz nagusiak izan dira orain arte, urtean behin antolatzen ziren ekitaldi handietan gauzatzen zirenak. "Gure eskaintzaren inguruko hausnarketaren ondorioz formatu txikiko jarduerak bultzatzea egokiago dela ikusi dugu", azaldu du Fernando San Martin Gazteriaren udal ordezkariek.

Gogoetaren emaitzak abian jarri dira jada, *Gazteartean* adierazpen-programa, horren lagin. Zinegotziaren esanetan, "Sormena, ikaskuntza eta aisia uztartzen dituen planteamendua da, sormenezko adierazpenetara hurbilduz eta esparru ezberdinetako jarduerak eskaintzen dituena: ikus-entzunezkoa, diseinua, ilustrazioa, IKT, moda, hiri-kirola, dantza..." Halaber, aterpetxeak, ludotekak eta udalekuek osatzen dute Udal Sailaren bigarren zutabea. Azken hauetan ere berrikuntzak egin dira, abentura-kirola baitute ardatz.

Gaztelekua

Martindozenea Gaztelekua udal eskaintzaren oinarrietako bat da, jada oso finkatuta dagoena. Eunate Enci-

nas Gazteria teknikariak dio "filosofia Gaztelekua gazteena dela eta beraien kudeatu behar dutela. Hiritarren diren aldetik erabakiak hartzerak bultzatu nahi ditugu".

Eskaintza

13tik 15era urte bitarteko gaztetxoek ekintza sorta bat dute aukeran; gustukoena aurrera eramaten dira. "Jarduerok hezitzea dute helburu", zehaztu du Miren Emezabal Gaztelekuko koordinatzaileak. "Beste ezaguri bat ere nabarmentzekoa da: ez dutela ordaindu beharrik, ezta izena eman beharrik ere".

16-17 urtekoek, berriz, hainbat gairi

buruzko aholkuak zein informazioa eskatu zituzten; hala nola, krisia, sexua, lana, ikasketak...

18tik 25ra arteko urtekoentzat taillerrak antolatzen dira eta espazio eskaera (erakusketak apailatzeko...) nahiz proposamenak bideratzean datza Gaztelekuaen jarduerak. Aurtengo udarako aire zabaleko ekintza programa prestatu du Gaztelekua.

"Parte-hartzea indartu aldera, gazteen batzarra eratzeko prozesua abiatu dugu", iragarri du koordinatzaileak. "Zeharo irekiak gaude eta malgutasuna eta eskaerei egokitzeko gaitasuna eskaintzen dugu".

Gazteen lokaletara hurbiltzea helburu

Lokal bat alokatzea gazte-kuadrilla askoren irtenbidea da aisialdian elkarrekin egoteko.

Gazteekin hartu-eman bide berriak irekitzeko filosofiaren testuinguruan, Gazteria Sailak, lehendabizikoz, gazteen topaleku horietara hurbildu nahi du. Hartara, aisialdiko lokalak kudeatzeko eta bizikidetzarako protokoloa landu du. "Udalak gazte hauengana jotzea du xede, zer atsegin duten jakiteko eta guk eskaera horiek nola bidera ditzakegun erabakitzeko", adierazi du Fernando San Martinek.



Txirrindaz Lekunberrin.



Gaztelekuko gazteak, piraguaz ibiltzera joan zirenean.



Inauterietako konpartsa 2012an.



Lehiaketak

- **BIDEO LEHIAKETA.** 18 eta 30 urte bitarte badituzu, bila ezazu beste norbait eta landu zure bideoa irailaren 30a baino lehen Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak abiatu duen RECacciona lehiaketan. Mila euroko saria irabazdezakezu!



Lana

- **MUSIKA ESKOLA.** Irakasleen aldi baterako kontratazioa eta lan poltsa. Oinarriak: ekainaren 4ko GAOn.
- Oboe irakaslea
- Tronboi-Tuba irakaslea
- Biola-Biolin irakaslea
- Fagote irakaslea
- Tronpeta irakaslea
Epea: 2013/06/21



- **LAN ESKAINTZAK.** Dagoeneko kontsulta ditzakezu eskaintza



guztiak zure mugikor / tabletetik.

Besterik gabe, jo ezazu helbide honetara:

www.irun.org/igazte/lana eta sartu! Erraza, ezta?



Ikastaroak

- **UDAN UNIBERTSITATEAN.** Udan unibertsitateak ez dira ixten! Irailera arte hainbat

Unibertsitate ezagut ditzakezu. Ikastaroen eskaintza oso ugaria da, eta kalitatezkoa.

Unibertsitate publikoek antolatzen dituzten udako ikastaroak kontsulta itzazu!

Autobusak sanmartzialetan



Ekainaren 22tik uztailaren 1era, GAUTXORI BENTAK eta GAUTXORI BEHOBIA. Ikus ordutegiak irun.org webean.

Gazte Ibiltariak

KIROLZALE, ABENTURAZALE ETA KOMUNIKATZAILE TREBEA ZARA? "Gazte Ibiltariak" abenturaren blogari izan nahi duzu?

Bizitako esperientzien berri Gazteukera blogean eta Ibilbideak atarian emango dute protagonis- tek, argazki, bideo, kronika eta mapen bidez.

Euskal Herrian zehar bizikletan, 7 eguneko ibilbidea egiteko prest dauden 8 gazteren bila gabiltza.



Gastuak ordainduta izango dituzte.

Noiz: Abuztuaren 4tik 11ra.

Baldintzak: 18 eta 30 urte bitartekoa izatea eta Gazte-txartelaren titularra.

Informazio guztia: gazteukera@euskadi.net

Gazte Informazioko ordutegi berria

Datorren ekainaren 24tik aurrera, UZTAILEAN, ABUZTUAN eta IRAILEAN, Gazte Informazio Bulegoak

udako ordutegia izango du: 10:00etatik 14:00etara astelehenetik ostiralera. Internet, 24 orduz irekita!!

Bidaiatu

irun.org/igazte

BIDAIATUK gauzak erraztuko dizkizu. Zuretzat, gazte, bidaia prestatzeko interesgarria izango den informazioa bildu dugu:

- Lekuak
- Dokumentazioa
- Deskontuak lortzeko txartelak
- MasterCard Nx zordun- keta txartela doakoa da.
- Garraioak
- Ostatu hartzekoak
- Aholkuak



EZEZ tailerrak

MARTINDOZENA
GAZTELEKUAN EKAINEAN:
EZEZ TAILERRAK

EZ dago izena eman beharrik EZ ordaindu beharrik. 12 urtetik 15 urte bitarteko gazteentzat +- 18:00etatik 19:00etara

Ekainak 19, asteazkena:
MAHAI JOLASA

Ekainak 20, osteguna: CESAR ENTSALADA

Ekainak 22, larunbata: TTIPI TTAPA MERIENDA

Ekainak 26, asteazkena: GAZTE FESTA Urdanbian.

Informazio guztia: irun.org/igazte



EKAR teleinmobiliaria
Nafarroa hiribidea, 7 - IRUN
www.teleinmo.es
943 628 333
Teleinmobiliaria

Erosteko, saltzeko edo alokatzeko modurik eraginkorrena.

Ekainaren 27ra arte

Luis Mariano, 27 Azoka solidarioa

Txingudi Vida GKEK merkatu txikia antolatu du. Helburua da elkartearen lana erakustea eta Burkina Fason garapen proiektuak bultzatzeko erabiliko den dirua biltzea.

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 10:00 -13:30 / 17:00 -20:00. Larunbat eta igandeetan: 11:00 -14:00h.



Uztailaren 14ra arte

Amaia KZn Erakusketa

Espainiar Akuarelisten Elkartearen zenbait kideren erakusketa: Teresa Jorda Vito, Laurentino Marti, Anet Duncan, Joan Coch, Josep Cruañas, Alberto Rafael de Burgos, Manolo Jimenez eta Francisco Castro.



Uztailaren 24ra arte

Oiasso museoan Erakusketa:

Arkeologia garaikidea

Javier San Martin "Shaf" artistak arte mota berritzaile batean murgiltzera gonbidatzen gaitu. Hainbat formatutako lanak ikusgai daude: ikus-entzunezkoak, eskultura, pintura eta instalazioak.

Artistak Irungo kaleetako pertsonaia ezaguna totem gisa hartzen du: Robert Julius Torio. Jendeak sarri ikusten du, beti militarrez jantzita, baina inork gutxik ezagutzen du bere bizitza.



Uztailaren 7ra arte

Nestor Basterretxea Menchu Gal gelan

Artistaren 100dik gora lan ikusgai Helena Elbustoren zuzendaritzapean apailatutako erakusketa honetan. Proiektua aurrera eramateko, Idurmendieta bere baserriko artxiboa ezagutzera ematea onartu du.

Ordutegia Ostiraletan eta larunbatetan, 18:00 - 21:00.

Igande eta jai egunetan, 11:30 - 13:30.

Bisita gidatuetan parte hartzeko, SAC-HAZera deitu behar da,



Ekainaren 21era arte

Irun Factory Erakusketa

Irun Factoryren egoitzan (J. A. Loidi kalea) Tutty Thusberg Euskadin bizi zen finlandiarren lanak ikusgai dira. Artista honen obren ezaugarriak behinena birziklapena da; hain zehatz, ehunak berberabiltzen ditu bere lanak egiteko.

"Wearable art" izeneko arte motari jarraiki, eskulturak, argazkiak eta bestelako formatuko obrak burutzen ditu.



Tunk aretoko kontzertuak

Ekainaren 22an

22:00etan

TUMBAUTOR FEST
Vol.5 + BORT + ATABALIANS + FATUOS FIRES + KORUMBA+BLACK MOON



Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara.

Ekainaren 27an

Amaia KZn

Zarzuela

Luis Mariano Lirika Elkartearen antolatuta, Amaia KZn, 19:00etan, Guridiren "El Caserío" zarzuela.



Sarrerak: Kutxaneten, liricailuismariano.org web gunean, leihatillean ikuskizuna burutuko den egunean eta Turismo Bulegoan. 24 euro bazkideak eta 30 bazkide ez direnak.

Uztailaren 2ra arte

Ficoban

Barrakak

Ekainaren 14tik uztailaren 2ra.

Ohiko prezioak:

- Haurrentzako atrakzioak: 2,5 euro. 6 bidaiako bonoa: 12,50 euro.

- Helduentzakoak: 3,30

- Atrakzio berezia: 4,40

Prezio merkeen egunak:

Ekainaren 19an (asteartea) eta uztailaren 2an (asteartea). 1,5 euro atrakzio guztiak.



BAKAILAUA DASTA EZAZU



Ibilaldia belauntzian



Noiz: Ekainaren 22an

Zer: Hondarribia-Getaria. Ibilaldia belauntzian

Antolatzailea: Oiasso Museoa

Hondarribia eta Getaria arteko Gipuzkoako itsasbideak aparteko paisaia eskaintzen du. Erraza da erromatar nabigatzaileentzat ohikoa izan behar zuen irudi hura berrosatzea. Bidaia belauntzian egingo da, garai haietan bezala. Ontziaren patroia, Navega a Vela enpresakoa bera, eta Oiasso Museoko zuzendaria arduratuko dira hainbat informazio emateaz; hala nola, nabigazio-teknika, historia eta kostaldearen erromatar antolamendua, arkeologia-aurkikuntza eta itsasbidaia berezi honen beste xehetasun batzuk. Talde batek Hondarribia-Getariarako ibilbidea egingo du; beste batek, Getariatik Hondarribirakoa. Bidaia baita 10 plaza eskaintzen dira.

Informazioa eta izen-emate orria: ww.irun.org/oiasso



JAI HAUETAN, **SANMARTZIALAK** SOINEAN



BIDASOARI BURUZKO ARROPA ETA OSAGARRI ON LINE DENDA



JARRAI GAITZAZU
FACEBOOKEN



EDO SAR ZAITEZ
GURE WEBEAN

BIDASOALDEA
OSO-OSO BERTAKO DENDA